

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Enplegu Zerbitzuak langabeentzako prestakuntza-ikastaroen deialdia argitaratu du

*Deialdiari esker, prestakuntzako zentroek ikastaro propioak programatu ahal izango dituzte enpresetan hautematen dituzten beharrekin bat etorriz*

Jueves, 08 de marzo de 2012

Iragan martxoaren 5eko Nafarroako Aldizkari Ofizialak (NAO) 2012an [langabeentzat bereziki bideratutako lanbide-heziketako ikastaroetarako diru-laguntzen deialdia](#) argitaratu du.

Deialdi honetan dauden berrikuntzak [prestakuntzako zentroek](#) zuzenean ezagutu zituzten [Nafarroako Enplegu Zerbitzuak](#) antolatutako bilera batean; bertan zentro horietako ehun bat ordezkari izan zen.

117 ikastaroetako bat emateko lehiatzen dute, lan-merkatuan hautemandako prestakuntza-beharrekin bat etorriz. Prestakuntzako lehen ikastaroak apirilaren erdialdera ematen hasiko direla aurreikusten da.

Aurtengo deialdiko berrikuntzetako bat ikastaroen katalogoa irekia dela da, eta horrek prestakuntzako zentroi beraiei, enpreekin batera, ikastaroak proposatzea uzten die haiek hautemandako beharren arabera. Era horretan, 2.961.015 euro bideratzen dira NEZaren katalogoan jasotako prestakuntzako jarduerak finantzatzeko (deialdiaren II. eranskina) eta 700.000 euro zentroek proposatutako jardueretarako.

Aurten, gainera, 10.000 euroko partida bat jasotzen da ezintasunak dituzten pertsonei arreta emateko egokitzapenak egite aldera beharra daramatzaten prestakuntza-jarduerak finantzatzeko. Exijitutako titulaziorik gabeko pertsonei arreta-ahalegin berezia eskainiko zaie ere 2. eta 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriaren ikastaroetan parte har dezaten. Xede horretarako, ikastaroak eskaintzen dira gaztelanian, matematiketan eta informatikan gaitasunak hobetzeko.

Nafarroako Enplegu Zerbitzua Nafarroan enplegurako lanbide-heziketa kudeatzen duen Nafarroako Gobernuaren organoa da eta, horretarako, bi deialdi daude, hurrenez hurren, okupatutako pertsonentzat eta langabeentzat, nahiz eta bi deialdiek egoera batean edo besteak dauden pertsonei lagun diezaieketen. Langabeentzako deialdia



NEZak prestakuntza-zentrokekin egindako bilkura langabeentzako ikastaroetarako laguntzen deialdiari buruz.

homologatutako 92 zentroren bidez ematen da, NEZen bidez, esaterako.